

noaua

gertu@go

Gozatu geurean, arduraz

Gertu behar zaituztegu!

Elkar zaindu dezagun!



Maskara erabili



1,5 m distantzia mantendu



Mahaien desinfekzioa egin arte itxaron



Lokal honetako langileen osasuna errespetatu

**Ostalariak eta merkatariak:
“Gu ez gara errudunak”**



ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA



Ondo pasa Gabonetan!

Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!



·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Gabonetako berezitasunak



OSATU ZURE
MENUA
ZURE GUSTORA!
(urte osoan)

FRESKOAK:

BEHI ETA TXAHAL AZPIZUNA,
KAPOIA, PULARDA, ARKUMEA, ANTXUME,
TXERRIKUMEA ETA ABAR...



FAMILI ETA LAGUN TALDE MENUAK:

ARRAI ZOPA, PIPER BETAKEAK, TXIPIROIAK,
TXERRIKUME ERREA, ANTXUME ERREA...



ERREAK: ARKUMEA, ANTXUME, TXERRIKUMEA...





Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

HARATEGIA - URDAITEGIA

Zubiaurrenea, 2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil



Albisteak iruditan

2.435,70 euroko balioa zuen Hurbilagoren erakusleioak

Ezagutarazi dute Kontzeju Zarra 13 kaleko lokaleko Hurbilagoren erakusleioaren “preziyo juxtua”; 2.435,70 euroko balioa zuen. Bi herritarrek asmatu dute prezio zehatza eta bien artean lehen postua erabakitzeke zozketa egin behar izan zuten antolatzaileek aste hasieran. Beste zortzi herritar izugarri gerturatu dira prezio horretara. Ondoko 10 lagunon artean banatuko dituzte erakusleioan zeuden produktuak:

- 1- Javier Ibarra: 2.435 euro.
- 2- Koro Arroyo: 2.435 euro.
- 3- Imanol Uribe: 2.434,50 euro.
- 4- Joxe Mari Arzallus: 2.433,45 euro.
- 5- Ainhoa Salsamendi: 2.431,14 euro.
- 6- Unax Lasa: 2.428,3 euro.
- 7- Jexux Arrillaga: 2.427 euro.
- 8- Iciar Alcorta: 2.424 euro.
- 9- Eider Gorostidi: 2.423 euro.
- 10- Loli Fernandez: 2.422,50 euro.



“Preziyo Juxtua” ekimenaren ostean “Argiztatu Herria” kanpaina abiarazi du Hurbilagok. Gabonetako bost otar zozketatuko dituzte abenduaren 31n.

“Argiztatu Herria”

“Preziyo Juxtua” ekimenaren ostean “Argiztatu Herria” kanpaina abiarazi du Hurbilagok. Gabonetako bost otar zozketatuko dituzte abenduaren 31n, or-

dura arte elkarteko kide diren dendetan erosketak egiten dituztenen artean. Otar hauek “Preziyo Juxtua” ekimena kokatu duten Kontzeju Zarra 13ko erakusleioan izango dituzte.

Laburrean

Eremu horian da Usurbilgo herria

Eremu laranjatik horira igaro zen aste hasieran Usurbil, 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia 237,42raino murriztu ondoren. Hilabete hasieratik abenduaren 13ra arte 15 Covid-19 kasu izan dira.

2021eko lehen NOAUA!, urtarrilaren 8an

Eskuartean duzuen hau izango da 2020ko azken astekaria. Datorrena urtarrilaren 8an argitaratuko dugu. Ordurako oharrik baduzue, hilaren 4a baino lehen helarazi: erredakzioa@noaua.eu / 943 360 321.

Iritsi dira Xiberoko otarrak

Xiberoko ikastolak lagundu eta bertako ekoizpena dastatzeko otarrak eskatu dituzuenok, jakin dezazuen; NOAUA!-ren egoitzara heldu dira. Egunotan jaso ahalko dituzue.

noaua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaua.eu ||| www.noaua.eu
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eu

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Alazne Arruti Bengoetxea

Denboraren neurritasuna

Duela gutxi, bizitzaren kasualitate batek gozoki astindu nau. Bada denbora bat, urte erdia atzerrian bizi izan nintzenetik. Agiñako mendi tartetik at, unibertsitate garaian, itsaso zabala gurutzatzeko aukera izan nuen Mexikora. Egiaz diot, kosta egiten zaidala ordutik dagoeneko 2 urte igaro direla ulertzea. Eta tristea bezain erreala izanda ere, aitortzen dizuet, epe hau ziurtatzeko mugikorrean jasota ditudan orduko argazkietara jo behar izaten dudala.

Galdetzen didan orori, Mexikok berezitat zer duen azpimarratzekotan, nahaspila hori osatzen duen jendeaz hitz egiten diot. Jende horrexek mantendu baitu lurralde honi darion esentzia anitz eta eroa. Mantendu ditu herri bakoitzeko ohiturak, musikak, jantzien koloreak, otordu, edari txundigarri eta hau guztia biltzen duen festa eta bizi poza. Dena den, le-rootan ez dut Mexiko den eta ez denaren inguruan jarduteko intenziorik. Lurralde bakoitzak baititu bere alde ilun eta argiak. Baina kasu honetan, alderdi eder horrek du azaldu nahi dizuedanaren pisu nagusia.

Aurrekoan, Hondartza galduan kantuarekin tematuta nenbilen. Sarrionandiaren hitzak, Ruperren ahots eta musika inguratzaileak maisuki osatzen dituen abestian galduta. Moila zaharra, etxalde pobre bat zurezko etxeekin, itsasoa sargazo eta medusez jantzia. Norbait, lagun izoztu bat agian, edo zu zeu, izenik gabeko hondartzaren parte. Hau izendatu edo ez



“(...) Eta ebatzi genuen, denbora ez dela geronek asmatutako neurri edo erreferentzia bat besterik. Geure bizitzak ordenan jartzeko trikimailu simple bat”.

ALAZNE ARRUTI

“Egunotan irakurtzen nabilen ‘Gorputz madarikatuak’ liburuan Lucia Baskaranek dioen bezala, heldutasunaren antzera, denbora bera erlazio, objektu, eta esperientzien pilaketa bat dela sentitu nuen, inoiz baino gehiago. Eta neronek eman nahiko nioke neurria”

erabakitzen. Agian beste nonbait egon beharko zenukeela ebatzen. Memoriaren mapa marrazten. Eta nola ez, denbora. Itsasoa eta behatzen ari za-

ren egunsenti eder hori bezain zeura den denbora. Eta kantuaren amaiera lehertzeko horren ezaguna den *México lindo y querido* esaldia. Eta adioa.

Noski, letren atzean dagoen istorioa guztiz bestelakoa izanda ere, gizakiok badugu gure esperientziak guztiaren gainean eransteko gaitasuna. Eta ni ere, hantxe gorpuzten naiz, nire uneko zalantza eta beldur-rekin. Itsas bazterrean, olatuak oinetan kolpeka, uhinak zerua eta itsasoa banatzen, eta ni unearen edertasuna ezin barneratuta. Benetan han ote nagoen, eta batez ere haraxe, zerk eraman ote nauen ulertu ezinda.

Kanta hau aditzen dudan bakoitzean nahasten zaizkit

barrenak, eta gehientsuenetan, denboran zintzilik mantendu ditudan orduko harremanetara egin ohi dut salto, elkarri, gure bizitzez zer ote den galdetzeko. Baina oraingoan, kanta bera eta nigan sortzen zena lagunekin partekatzeko beharra sentitu nuen. Eta neronek itzuli beharko banu, zirra-bera bertan behera desegingo zenaren beldurraz, abestiaren itzulpen txukun bat topatzen hasi nintzen sarean. Eta bai zorionez topatu ere. Eta hantxe bidali nuen esteka. Memoriaren hutsuneak beteaz. Eta jaso nituen erantzun zinez ederrak eta behar nituen galdera transzendentak.

Mezuen artean, lagun min batek, bidalketa baten datuak pasa zizkidan opari bat jaso nezan. Moduren batean edo bestean, nire hemengo helbidea lortu baitzuen Carlos Cifuentesen *La región más transparente* liburua ezustean bidaltzeko. Eta pare bat egunean ordu batzuetako bideo dei batean ikusi genuen elkar aspaldiko partez. Bizitzaren kasualitatez. Hemengo ordu txikitik, eta 7 orduko aldeaz, han.

Eta ebatzi genuen, denbora ez dela geronek asmatutako neurri edo erreferentzia bat besterik. Geure bizitzak ordenan jartzeko trikimailu simple bat. Eta egunotan irakurtzen nabilen *Gorputz madarikatuak* liburuan Lucia Baskaranek dioen bezala, heldutasunaren antzera, denbora bera erlazio, objektu, eta esperientzien pilaketa bat dela sentitu nuen, inoiz baino gehiago. Eta neronek eman nahiko nioke neurria.

Neurri malguagoak, “transmisio altuko” egoeran segi arren

100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia 850etik 327ra murriztu da azken asteotan EAE-n. Ondorioz, “transmisio oso altutik” “altura” igaro gara. Halere, Covid-19aren hedapena murrizteko urte amaiera honetako ospakizun egunei begirako neurriak malgutzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Abenduaren 12az geroztik indarrean da dekretu berria. “Hilabete eta erdian guztion artean egoera hobetu eta etxeko konfinamendua eragozteko lortu dugu. Asko lortu dugu eta ez dugu atzera egin behar”, gogorarazi zuen neurri berriok iragartzeko agerraldian Iñigo Urkullu lehendakariak. Horregatik, zioenez “eguberri hau ezberdina egin behar dugu”. Arduraz jokatzeko deia egin du Jaurlaritzak. “Prebentzio neurri hobereena pertsona bakoitzaren kontzientzian dago”, Lehendakariaren esanetan.

Hemen Eusko Jaurlaritzak iragarritako neurri nagusiak. Dirudenez, egoera nabarmen ez bada aldatzen, urtarrilaren 11ra arte segi dezakete indarrean:

■ Etxeratze-agindua: 22:00-



Kirol federatuko entrenamenduak baimenduak daude orain, gehienez seiiko taldeetan.

ARAUTEGIA

“21:00-08:00 artean ezingo da alkohola saldu ezta kalean kontsumitu ere”

06:00 artean. Abenduaren 24tik 25erako eta abenduaren 31tik urtarrilaren 1erako gauean, 01:30-06:00 artean.

■ Gipuzkoa barruan mugitu gaitezke, baina Gipuzkoatik ezingo gara atera abenduaren 23ra arte.

■ Abenduaren 23tik 26ra eta abenduaren 30etik urtarrilaren 2ra Euskadiko konfinamendu perimetrala ezabatuko da. EAE-ra sartu eta EAE-tik irten ahalko gara, beti ere senide edo hurbilekoen etxera joateko

edo finkatuak dauden salbuespen kasuetan.

■ Gehienez 6 pertsonako bilkurak baimendu dira. 10ekoak gehienez (gehienez bi bizikidetzatza unitate ezberdinekoak izatea iradoki dute), abenduaren 24ean, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean.

■ Jende pilaketak bultzatzen dituzten ekitaldiak bertan behera geratzen dira (San Tomas azokak, kabalgatak, kantu saioak, San Silbestre lasterketak...). Kultur ekitaldi egokituak orain arte bezala, 21:00etarako amaitu beharko dira, aforo erdira murriztuta.

■ Ostalaritza guneen irekiera (elkarte gastronomikoak ez) 06:00-20:00 artean (zerbitzuguoneak salbuetsita), 100.000 biz-

tanletik 500 kasutik beherako intzidentzia duten udalerrietan: terraza irekiak, barneko zerbitzua %50era murriztua, mahaietan eserita kontsumitu ahalko da, zutik eta barran ez. Maskara une oro eta egoki erabili behar da espazio guztion, jateko edo edateko unean soilik kendu ahalko da.

■ Merkataritza guneei 21:00etan ixten segi beharko dute, gasolindegia eta farmaziak salbu. 21:00-08:00 artean ezingo da alkohola saldu ezta kalean kontsumitu ere.

■ Kirol federatuko entrenamenduak baimenduak, gehienez seiiko taldeetan; aldagelen edukiera %30ean okupatu ahalko da, dutxak banaka baliatu ahalko dira. Kirol jardueren gainerrako murrizketak bere horretan mantenduko dira; tartean, Eskola Kirolaren etenaldia. Urtarrilaren 11n murrizketok malgutzeko aukera aztertuko dute, une horretako egoera epidemiologikoaren arabera.

■ Adinekoen egoitzetara bisi-tak egiteko araudi berezia jarriko dute indarrean.

■ Garraio zerbitzuak 23:00ak arte. Abenduaren 24tik 25erako eta abenduaren 31tik urtarrilaren 1erako gauetan.

Presoen alde ekimen alternatiboak

Covid19-aren eraginez, gainerrako herri dinamiken antzera egokitu bai baina ez dituzte etengo.

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak “Olentzeroren mezua” plazaratzeko hitzordua eta “2021ean Aske! opa” ekimena deitu du abenduaren 24an eta 31n hurrenez hurren. Usurbilgo Sarek aldiz, manifestazioa herrian bertan, urtarrilaren 9an. Eta ez urte luzez

egin den moduan Bilbon.

Egun eta ordu berean izango dira mobilizazio guztiak; urtarrilaren 9an arratsaldeko 17:30etan eta “osasun-segurtasunerako neurri guztiak errespetatuta. Leku zabaletan, non guztiok izango dugun aukera bakea, konponbidea eta bizikidetzatza aldarrikatzeko”.

Lehenago, asteotarako martxak deitu ditu Sarek Hego Euskal Herrian. Gipuzkoakoa,

abenduaren 26an 11:00etan Martuteneko espexetik Loiolara. Informazio gehiagorako, sare.eus

Euskal presoen eskubideen aldeko mobilizazioak

Abenduak 24, osteguna

■ 19:30 Olentzeroren mezua Mikel Laboa plazan.

■ Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Abenduak 31, osteguna

■ 19:30 “2021ean Aske! opa” Dema plazan.

■ Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Urtarrilak 9, larunbata

■ 17:30 “Bidea gara”, Sarearen manifestazioa Usurbilen.

■ Deitzailea: Sare.

■ Oharra: maskara jantzita eraman eta segurtasun tartea errespetatu.

Erraustegia guztiz martxan

Egun historikotzat jo zuten iragan abenduaren 11 Gipuzkoako agintariek; Zubietako erraustegira egin zuten bisitan, azpiegitura guztiak ehuneko ehunean lanean direla ziurtatu zuten. Eta honenbestez, “aro berri” bati ekin diola Gipuzkoak; hondakin kudeaketaren arazoari behin betiko irtenbidea eman diotela. Eta iragarpen bat ere egin zuten; “une honetatik aurrera, Ekondakini zerbitzua ordaintzen hasiko zaio”.

Zabortegeien garaia amaituztat eman dute; honakoa, “ekonomia zirkularrean oinarritutako Gipuzkoa baten hasiera” dela diote. Beste behin, erraustegia Europako instalazio modernoenetakoa eta “puntakoenetakoa” dela nabarmendu zuen Ahaldu Nagusi Markel Olanok, “gainera, bere jarduera kontrol publikoaren pean egongo dela bermatuta”. Ekonomia zirkularra sustatu eta “energia-eraldaketarako” urrats sendoa eman dela diote, “gure gizartearen berreskuratze berdea bultzatzeko”.

Zenbakitan

Gipuzkoako Foru Aldunditik guztiz martxan diren Zubietako gaineko azpiegiturez ondoko



Egun historikotzat jo zuten iragan abenduaren 11 Gipuzkoako agintariek.

ERRAUSTEGIA, MARTXAN

“Azpiegitura guztiak ehuneko ehunean lanean direla ziurtatu zuten”

zenbakiak plazaratu dituzte:

■ Tratamendu Mekaniko Biologikoko (TMB) plantak 162.000 tonako edukiera izan eta urtero Gipuzkoako 135.000 tona tratatuko omen ditu. Errefusarekin nahastutako material birziklagarrien %8-10 berreskuratuko dute. TMB-ak eta erraustegiak jada 100.000 hondakin baino gehiago tratatu eta 4 milioi kWh energia sortuko omen ditu. %84 sare elektriko-ira isuri da.

■ Gipuzkoako birziklatze-tasa egungo %54,94tik (Usurbilek

ia %90ekoa du) %63ra igoarazi nahi dute azpiegitura hauekin.

■ 94.000 tona CO2 isurtzea saihestu nahi dute.

■ Hasierako inbertsioa: 217 milioi euro.

■ Zuzeneko 80 eta zeharkako 100 lanpostu sortuko direla aurreikusten dute.

■ Erraustegiak urtero 160.000 MWh sortuko omen ditu, 45.000 etxebizitza eta 130.000 persona energia elektriko horitzeko adina energia.

“Naturklima” ere Zubietako Eskuzaitzetara

Erraustegia, hondakinak tratatzeko azpiegitura gehiago, kartzela... eta “Naturklima”. Gipuzkoako Klima Aldaketaren

foru-fundazioa ere Zubietako gaineko kokatuko du Foru Aldundiak 2023an, “Eskuzaitzetako 5. partzelan” egunotan zehaztu dutenez. Erraustegitik hurbil. Egoitza berri honen eraikitze lanak esleitzera doazela jakinarazi dute egunotan. “Egoitza berriaren kokatuko dira Klima Aldaketaren Behatokia, Klima Aldaketaren Gela eta 2 HUB, ekonomia zirkularrean eta energia-trantsizioaren arloan industria- eta enpresa-soluzio berriak garatzeko, esperimentatzeko, pilotatzeko eta, ondoren, gizarteratzeko”, Gipuzkoako Foru Aldunditik azaldu dutenez.

Behin-behineko egoitza egun Miramongo parke teknologikoan du. Gune berri hau eraikitze lanak lizitaziora aterako dituela jakinarazi du egunotan Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lizitazio aurrekontua 8.232.820 eurokoa izango da (BEZ barne). Martxoan esleitu asmo dituzte. “Naturklima industria eta enpresa berde berriak ezartzearen sustatzailea izan daiteke, eta Eskuzaitzetan ekonomia zirkularrean, energia-trantsizioan eta klima-aldaketan espezializatutako enpresen eta industrien industriagune berdea sortzen lagundu”.

Espetxea 2023ko udaberrian ireki nahi dute

2 hilabeteko lanen ostean, 2023ko udaberrian ireki nahi lukete Martuteneko egungo espetxea ordezkatzeko duen Zubietako azpiegitura berria.

2021ean Eskuzaitzetan eraikitzen hasi asmo duten kartzelaren proiektua aurkeztu dute egunotan Donostian, Fernando Grande-Marlaska barne ministroa buru zuen Espainiako Gobernuo nahiz euskal

erakundeetako ordezkari batek egin duen lan saioan. Azaroaren 13an esleitu zuten proiektua. Obrak udaberrian hasi ahal izateko, otsailean Espainiako Gobernuo Ministroen Kontseiluan esleitu dituztela aurreikusten du Grande-Marlaskak. 41 milioi eurotik gorako aurrekontua du “Centro Penitenciario Norte III” izeneko egitasmoak. Zubietako azpiegitura berriarekin, egungo espetxe

sistemara egokitzeko zaharkitutzat jo duten 1948an eraikitako Martutenekoa eraitsiko da eta bide emango zaio Donostiako Udalak aspalditik bertan eraiki nahi dituzten etxebizitza berrien proiektuaren garapenari.

35.923 metro karratu okupatuko ditu erraustegitik hurbil Zubietako gaineko eraikiko den azpiegiturak. 234 ziega bikoitz izango ditu. Espainiar estatuko modernoetarikoa



41 milioi euroko aurrekontua du “Centro Penitenciario Norte III” izeneko egitasmoak.

izango dela aurreratu du barne ministroak.

Erraustegiak eragindako kutsadura modu independentean ikertzen segiko dute

Zubietako erraustegiak eragindako kutsadura modu independentean neurtzeko lanketaren bigarren faseari ekin diote Zubieta Lantzen elkarteak eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak (EAM). Asteotan erraustegia inguratzen duten lurretan laginak hartzen aritu ostean, iaz zegoen kutsadura eta egun dagoena alderatzen hastera doa iaz bezala, Herbehereetako Toxicowatch Fundazioa.

“Lehendik informatu genuenez, Zubieta Lantzen elkarteak eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak Toxicowatch (TW) fundazio Herbeheretarri eskatu zioten Zubietako erraustegiaren biomonitorizazio ikerketa bat egitea... herritarrak ezin direlako fidatu ez erraustegia kudeatzen duten enpresen eta ez Gipuzkoako agintarien kontroletan; Arkaitzerrekan zientoka arrain hil dituen kutsaketaren kontrolik eza lotsagarriak erakutsi duen moduan”, dio Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak.

Erraustegia martxan jarri aurretik, 2019ko irailean egin zuten lehen lagin bilketa, behin aipatu planta martxan jarrita datuak



Kutsadura modu independentean neurtzeko lanketaren bigarren faseari ekin diote Zubieta Lantzen elkarteak eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. Artxiboko irudia.

TOXICOWATCH

“Asteotan erraustegia inguratzen duten lurretan laginak hartzen aritu dira”

urtez urte alderatzen joateko. Asteotan ere laginak biltzen ari da erraustegia inguratzen duen zonaldean. Holandako Toxicowatch Fundazioak aztertuko ditu gero.

“Ikerketa honetarako honakoak aztertu dira: erraustegitik hurbil bizi diren emakume-amen esnea, oilategietako oiloen arrautzak, landareak eta orriak (Pinus radiata pinuenak, Ilex aquifolium gorostiarenak, Ulex europaeus otearenak), go-

roldioa, lurra, erreko sedimentua eta ura”, azaldu du EAMak.

Oilategietako arrautzen laginen emaitzak

Arrautzei dagokienean, erraustegitik 5 kilometroko eremuan egon, herritarrek autokontsumorako izan eta libre hazitako 10 oilategietako oiloen arrautzak aztertu dituzte, “adierazle onak direlako lurreko dioxina bidezko kutsadura ezagutzeko eta arrautzak direlako inguruan diren dioxina eta beste POP gaiak gizakiengana iristeko bide nabarmena”.

Horretarako, “kokaleku guztiak bisitatu dira ikusteko bakoitzaren inguruan ba ote den beste

dioxina edo PCB iturri nahastailerik. Seguritasunezko biltegia osatzeko, hartu dira leku bakoitzeko lurraren, oiloen janariaren eta zenbait landare zehatzen laginak ere”, EAMtik argitu dute.

Hamarretik bost oilategietan “oiloen arrautzek osorik betetzen dituzte Europar Batasunak dioxinez dauzkan arauak. Beste bi oilategietako arrautzen dioxinek berdintzen dute mugatzat ezarritako maila. Eta hiru kokaguneetako arrautzetan dioxinek gainditu dituzte arriskurik gabe jan ahal izateko mailak”. Azken hiru kasuotan, egoera jabeen jakinaraztearekin batera azaldu zaie, “oilategien inguruetan kutsagarri horien presentzia esplikatuz dezaketen zein fabrika edo azpiegitura egon daitezkeen”.

EAMren esanetan, ez da harigarria arrautzetako dioxinen presentzia. “Gipuzkoa bezalako lurralde oso industrializatu eta hiritartuan inor ez luke harritu behar arrautza eta beste jakietan kutsagarriak aurkitzeak, izatekotan hori da arrazoi arrazoi ere larriagoa erraustegia bezalako alferrikako enpresa kutsagarri berri gehiago ez erakitzeke”.

Metal astunen arrastoak

Laginak ere hartu dituzte erraustegitik 2 kilometroko eremuan, “dioxinak, dioxinak bezalako PCBak, aktibitate estrogenikoa eta metal astunak” aztertzeko. Emaitzak eskutan, “dioxinek eta dioxinak bezalako PCBek kopuru txikiak erakutsi dituzte lurzoruan eta Pinus Silvestris pinuaren orrietan ez dira iritsi detektatu ahal izateko kopurura ere. Uren laginetan ez da kasik jardura estrogenikorik aurkitu, soilik

igoera txiki bat erraustegiaren oso inguruko sedimentuetan. Metal astunei dagokienez, lurzoruan eta landareetan ageri dira inguruotan urteotan zenbait industriak eduki duen jardueraren arrastoak. Lurzoru eta landareei dagokienez, aurrez hautatutako sei kokaguneetatik bost erabiltzeko egokitzen jo ditu Toxicowatchek”.

39 emakume-amen esnea

Iaz, ikerketa hau martxan jarri

zela, lerro berri bat zabaldu zuten; emakume-amen esnea. 39 emakumeek parte hartu zuten ikerketan. “Horien emaitzek dioxina eta PCB maila txikiak erakutsi dituzte. Atal hau kontrolatzeko asmoa dago, bularreko esnea emateko prest dauden amekin elkarlanean”.

Ikerketa laguntzeko deia

Kutsadura kontrolatu eta osasun zein ingurumenaren babesaren ardura duten Gi-

puzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak “beren ardurak betetzen ez dituztenez”, Zubieta Lantzen eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak dei egiten die bai Gipuzkoako udal eta herritarrei, orain arte bezala “diruz babestu eta lagundu dezatela jadanik hasi eta ondoko urteetan jarraituko dugun kontrol herritar hau”. Informazio gehiagorako: erraustuez.org

PSE-EEK EHBilduri eskatu dio atzera bota dezala 2021erako udal aurrekontu proposamena

PSE-EEK osoko zuzenketa aurkeztuko die 2021eko udal aurrekontuei. Patxi Suarez udal zinegotziak NOAUA!ri azaldu dioenez, “murrizketengatik eta dirulaguntza ideologikoengatik” hartu du tamainako erabakia.

Osoko zuzenketaz gain, PSE-EEK zatikako 49 emendakin aurkeztuko ditu. EHBilduk gidatzen duen udal gobernu taldeari eskatu dio 2021erako aurrekontu proposamena atzera bota dezala eta “beste aukera ezberdin batzuk aztertu ditzala, zerbitzu publikoak eta dirulaguntzak murriztuak izan ez daitezkeen”. PSE-EEK proposamen hau egin du “pandemiak Usurbilen eragin duen krisi-egoera okertu ez dadin”.

Covid-19 birusak eragindako pandemiak krisi larria sortu du, “ez soilik osasun arlokoa, baita ekonomikoa ere. Ezin ditugu aurrekontu hauek babestu, non arau orokorra den iazko aurrekontuetan aurreikusitako partidak murriztea”.

Patxi Suarez zinegotziaren esanetan, “udal gobernuak %2ko beherapena ezarri du partida guztietan. Neurri hori irizpide orokor gisa ezarri du eta ulertezina da”. Usurbilgoa baita Gipuzkoako udalerrri bakarretakoa non diru sarrerak handitu egingo diren. “Iazko aurrekontuekin alderatuz, mi-



Udalbiltzarentzako bi partidak kentzea eta herriko elkarteentzako laguntzak handitzea proposatu du Patxi Suarez PSE-EEko zinegotziak.

PATXI SUAREZ, PSE-EE

“Krisi garaietan agerian geratzen da udal gobernu batentzat zeintzuk diren lehentasunak eta Usurbilen agintean den alderdiaren ideologia saritzen da, hiritarren lehentasunen gainetik”

lioierditik gora” handituko eida diru sarrera hori.

PSE-EEko zinegotziaren esanetan, Gizarte Zerbitzuak blindatzeko apustua egin beharko litzateke. “Baina udal gobernuak Eguneko Zentroaren zerbitzuak murriztu egin nahi ditu eta baita nagusien garrario zerbitzua ere, herritarrei zuzendutako beste programa batzuekin gertatu den bezala. Etxebizitza tutelatuen programazioa %63an, Osasun Planaren garapena %46an, adintxikikoen gatazkak ekiditeko

programa %67an, emergentzia programa %67an...”.

“Ez hori bakarrik”, PSE-EE alderdiaren esanetan, “udal gobernu taldeak modu nabarmenean gutxitu ditu herritarrei eta elkarte ezberdinei zuzendutako udal dirulaguntza publikoak, herrian hain lan ona egiten duten horiei”. Adibide batzuk zerrendatu ditu ohar bidez zabaldu duen idatzian:

■%25 gutxiago Santixabel jaietarako adostutako dirulaguntzan.

■%19 gutxiago kultur arloko dirulaguntza deialdi irekietan.

■%25 gutxiago euskaltegiarekin adostutako dirulaguntzan.

■%10 gutxiago kirol taldeei eskainitako dirulaguntza zuzenetan.

■“%100ean jaitasi du emakumeen kirola sustatzeko dirulaguntza, partida desagerraraziz”.

■%26ko murrizketa kirol arloko laguntza berezietan.

■“%100ean gutxitu du San Ixidro, Sagardo Eguna, San Tomas, Erle Eguna eta Andatza Egunekeo jardueretarako partidak”.

■%40ko murrizketa adinekoen egoitzekin hitzartutako dirulaguntzan.

■%46ko murrizketa garapen bidean diren herrialdeentzako partidari.

“Politika identitarioak”

Krisi garaietan agerian geratzen da udal gobernu batentzat zeintzuk diren lehentasunak eta, Usurbilgo kasuan, “agintean den alderdiaren ideologia saritzen da, hiritarren lehentasunen gainetik”. PSE-EEren esanetan, hauek dira EHBilduk saritzen dituen herri politika identitarioak:

■“Naziometroa delakoarentzat 4.000 euroko partida bat gorde du udal gobernu taldeak”.

■“Udalbiltzarentzako 20.000 euroko partida mantendu du”.

■“Udalbiltza diruz laguntzeko 10.400 euroko partida berria sortu du, kultura promozionatzeko helburuarekin, herriko elkartei kultur arloko laguntzak murrizten zaizkien aldi berean”.

■“Memoria Historikoa eta Bizikidetzatza partidaren %2ko murrizketa”.

■“Berdintasuna eta Aniztasunari zuzendutako partidaren %17ko beherapena”.

15.000 euroko partida, “emakumeen partehartzea sustatzeko”

Murrizketen aurrean, alderdi sozialistako ordezkariak dio baidirela alternatibak: “kredituetarajo, lehentasunezkoak ez diren gastu edo inbertsio batzuk atzeratu...”. Gerora, 2020ko aurrekontuaren likidazioaren ondorengo superabita baliatuz, udal aurrekontuetan txerta daitezkeenak. “Baina EH Bilduk baztertu

egin du aukera hori”.

Osoko zuzenketaz gain, PSE-EEK zatikako 49 emendakin aurkeztu ditu. Euskal subiranotasunari buruzko barometroa egiteko partida 4.000 eurotan murriztea, Udalbiltzarentzako bi partidak kentzea, herriko elkarteentzako dirulaguntza-poltsa 5.000 eurotan handitzea, eta he-

rriko kultur taldeentzako partida 15.000 eurotan handitzea.

Publizitaterako 14.400 euroko partida kentzea, eta Gizarte Zerbitzuak 45.000 euro gehiagorekin blindatzea. “Gipuzkoan familia asko daude oso gaizki pasatzen ari direnak eta dirua publizitatean gastatzea ez da neurri zuzena”.

Azkenik, 15.000 euroko partida proposatu du emakumeen partehartzea sustatzeko. Ezgaitasun edo dependentsia arazoak dituzten pertsonentzat, PSE-EEK 6.000 euroko partida sortzea proposatzen du: “Gizarte Segurantzak estaltzen ez dituen mediku tratamenduak ordaindu ahal izateko”.

EAJk zazpi proposamen aurkeztu ditu 2021eko udal aurrekontuetan jasoak izan daitezzen

EAJ-PNV udal taldeak zazpi proposamen erregistratu ditu, Ogasun Batzordean aztertu eta 2021. urteko udal aurrekontuetan kontuan har daitezzen.

Zazpi proposamen horietatik hiru 2020ko aurrekontuetan jasoak zeuden baina Covid-19arengatik bertan behera geratu dira: Kaxkotik Zubietarako bidegorria egitea Ugaldea industrialdearen atzetik; Etxealdia auzoko irisgarritasuna hobetzea eta Bizikidetzeta eta Memoria lantzea.

Beste lau proposamenak berriak dira: Banda Zabala landa eremuetan bermatzea; Etxealdiako zubi luzatzea; Harane futbol zelaian harmailak ipintzea eta parke eta pasealekuetan eserleku egokiak jartzea.

EAJren esanetan, "orotara 171.000 euroko kopurua sei partidetan banaturik, 2021eko udal aurrekontuetan jasotzeko helburuarekin" aurkeztuak izan direnak.

Banda Zabala landa eremura zabaltzea

Aurreko astean Banda Zabalaren inguruko proposamenaren berri eman genuen NOAUA'n.



"Etxealdiako zubiaren luzapena aurreikustea proposatzen dugu, trenbidea saihestu eta Santuenera doan zubiraino bidegorri batekin lotuz".

JOSUNE URKOLA, EAJ

EAJk beharrezkoa ikusten du harmailak ipintzea Harane futbol zelaian, eta "hasiera gisa 40.000 euroko partida bat sortzea proposatzen dugu"

Josune Urkola zinegotzi jeltzalearen esanetan, "abenduaren 4an udal erregistroan egindako eskaeraren ildotik, landa eremuan Banda Zabala bermatzea eskatzen dugu. Uste dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen ekimena gauzatzeko, Udalak bitartekoak jarri behar dituela. Nahiz eta orain arte zuritutakoa 2022an ordaindu behar dela jakin,

zuriketa lanak egiteko 30.000 euroko partida bat gordetzea eskatzen dugu".

Etxealdiako zubi luzatu, trenbidea saihestuz

Etxealdiako zubiari dagokionez, "bere luzapena aurreikustea proposatzen dugu, ETSrekin (Euskal Trenbide Sarea) elkarlanean trenbidea saihestu eta Santuenera doan zubiraino bidegorri batekin lotuz". Josune Urkola EAJko bozeramailearen esanetan, "hau gauzatu dadin, proiektua idazteko partida bat beharrezkoa deritzogu".

Harmaila jartzea Haranen

Harane futbol zelaian harmailak jartzea da jeltzaleek egiten duten beste proposamena. "Co-

vid-19ak argi eta garbi adierazi digu kurtso berria hasi denean ikuslegoa Harane zelaira bertaratzeko arazoak izan direla eserlekurik ez dagoelako". EAJren esanetan, "beharrezkoa iruditzen zaigu azpiegitura honen hutsunea konpontzea eta horretarako, hasiera gisa, 40.000 euroko partida bat sortzea proposatzen dugu".

Parkeetan eta pasealekuetan eserleku egokiak jartzea

"Azken boladan eserleku berriak jarri dira egungo estetika modernoarekin", dio EAJk. "Eserleku hauetako batzuk ordea ez diote adineko pertsonak edota mugikortasun arazoak dituzten beharrei erantzuten, ez dutelako ez bizkarralderik eta ez besoentzako euskarririk". Alderdi jeltzalearen esanetan, "honek, zenbaitetan, arazoak sortzen die jaikitzeke unean. Horregatik estetika hutseko eserlekuak baino, lehentasun handiagoa izan behar dute eserleku egokiak edukitzea, bai esertzeko unean eta bai altxatzerakoan". 6.000 euroko partida proposatzen du EAJk, "bizkarraldeak eta besoentzako euskarririk dituzten eserleku egokiak jartzen hasteko".

2020an aurkeztutako hiru proposamen aurkeztu ditu berriro

2020ko aurrekontuetan jasoak izan ziren hiru proposamen hauek, baina Covid-19aren ondorioz bertan behera utzi behar izan ziren. Berriro aurkeztu ditu talde jeltzaleak.

Oinezko eta txirrindularientzako bidea Kaxkotik Zubietara

Beharrezko dokumentuen idazketarako zein kudeaketaren kostuari aurre egiteko "30.000 euroko partida eskatzen dugu. Partida hau 2020ko

aurrekontuetan onartu zen baina ez da aurrera eraman eta berriro jasotzea eskatzen dugu", dio Usurbilgo EAJk.

Etxealdiako irisgarritasuna eta antolamendua hobetu

Etxealdia auzoa kaxkoan bertan dagoen eremu bat izanik, gaur egun N634 errepidearen eta kale Nagusiaren arteko uharte bat dirudiela dio EAJk. "Horregatik ezinbestekoa deritzogu Etxealdia eta Bizkarre

arteko eremuaren garapena bultzatzea, eremu guztia berrantolaketa lortzeko eta, honekin batera, Etxealdia auzoko irisgarritasunari eta kaxkoarekiko isolamendu arazoari aurre egitea". Hau guztia aztertzeke, Usurbilgo EAJ-PNVk aurrekontuetan 50.000 euroko partida bat jasotzea eskatzen du.

Bizikidetzeta sustatzeko partida

2020an aurkeztu baina garatu

ez den proposamen bat luzatu du berriro EAJk. "Kultura politikoko demokratikoa, bizikidetzeta eta giza eskubideen arloan ekimenak garatzeko 15.000 euro bideratzea proposatzen dugu. Helburua da bakea betiko eta modu atzeraezinean finkatzea, bizikidetzara bideratzen laguntzea eta Usurbilgo kultura demokratikoan sakontzea, herritarren artean giza eskubideen ezagutza sustatuz".

Kiroldegiko txandak Internetez eskatu daitezke

Pandemiak gorabehera ugari eragin ditu sektore guztietan. Baita kiroldegia ere. Zailtasunak zailtasun, “gaur egun zerbitzu gehienak eskaintzen ari gara”, Beñat Larrañaga zinegotziak aurreko asteko agerraldian azaldu zuenez. “Agerian geratu da jarduera fisikoa eta kirolaren praktika oso garrantzitsuak direla. Hori da bidea”. Udal zinegotziaren esanetan, “frogatu dugu jarduera fisikoa eta kirola egitea gauza segurua dela”.

Hala ere, egoera ez da egoiena: “Oraindik orain, gure herriko gazteei eta umeei kirola egitea galerazi egiten zaie”, aurreko asteko asteazkenean LABI EAEko Babes Zibileko Planaren aholku batzordearen neurri erreferentzia eginez.

Zailtasunak zailtasun, “begibistakoa da jendea gogoz dagoela”, dio Larrañagak.



Garikoitz Garagarza udal teknikariak eta Beñat Larrañaga zinegotziak eman zituzten plataforma digital berriaren inguruko xehetasunak.

BEÑAT LARRAÑAGA

“Aurrez aurreko aukera baztertu gabe, zerbitzua hobetuz herritarrengana iristeko bide berriak jorratzen jarraitzen dugu”

“Gimnasioko nahiz igerilekuko erabilera datuek hala erakusten dute”. Honi lotuta, kirol arloko zinegotziak erabiltzaileen jarraiera ulerkorra nabarmendu zuen: “Eskaintza mantendu eta modu seguru batean eskaintzeko ahalgina egin dugu lehen unetik.

Badakigu egindako moldaketek hainbat deserosotasun sortu dituztela eta badugula zer hobetua”. Hitzordua hartzeko sistema, esate baterako. “Telefonoa komunikatzen topatzen dute sarritan edota ezin dute euren kirol praktika nahi bezala planifikatu. Hori dena zuzendu asmoz, Buruntzaldea mailan hartutako neurri hau aurkeztera gatzoz: online bidezko hitzordua eskatzeko aukera”.

Pauso bat gehiago

Orain, tramiteak.buruntzaldea.

eus web orrialdearen bitartez, erabiltzaile bakoitzak bere txandak nahieran eskatu eta kudeatzeko aukera izango du. Beñat Larrañagaren esanetan, “administrazio elektronikoaren bidea jorratzen hasi ginen duela urtebete eta gaurkoa pauso bat gehiago da bide horretan. Aurrez aurreko aukera baztertu gabe, zerbitzua hobetuz herritarrengana iristeko bide berriak jorratzen jarraitzen dugu”.

Eskualde mailako ekimena

Lasarte-Oria, Urnieta eta Andoingo kiroldegietan ere txandak Internetez eskatzeko epea zabaldu dute eta atari berberetik egin behar da.

Aurrera begira, tramiteak.buruntzaldea.eus web orrialdearen bidez kiroldegiari dagozkion tramite gehiago eskaintzea dute helburu, baina lantzen ari dira oraingoz. Aurrerago emango dute bestelako eskaintza horien berri.

Hainbat argibide

Kiroldegiko erabiltzaileei txandak hartzea erraztea du helburu tramiteak.buruntzaldea.eus web orrialdeak. Telefonoaren aldean, Interneteko aukerak badu abantaila handi bat: une oro dago txandak hartzeko aukera. “Asteko zazpi egunetan, kiroldegia irekita zein itxita izan. Gainera, txanda hartzeko unean jakin ahal izango dute zenbat plaza dauden libre une horretan bertan”, udal iturriek aditzera eman dutez.

Erabiltzaile profila sortzeko zer behar da?

NAN zenbakia edo B@kQ txartela erabilia egin daitezke.

Soilik gimnasiaorako al da? Ala igerilekurako ere balio al du Internet bidezko sistemak?

Igerilekuetarako nahiz gimna-



tramiteak.buruntzaldea.eus web orrian, Usurbil deritzon txokoan Hitzorduak hitzan klik egin eta erabiltzaile profila osatzeko leiho hau agertuko zaizu.

TELEFONOZ ERE POSIBLE DA

“Internetarekin moldatzen ez direnek telefonoz deituta jarrai dezakete txanda hartzen”

siorako har daitezke txandak.

Hartutako txanda konproba-

tzeko modurik ba al dut?

Erabiltzaile bakoitzak bere txokoa izango du web orrialdean, nork bere hitzorduak ikusi eta kudeatu ahal izateko.

Telefonoz txanda eskatzeko aukera indarrean al da oraindik?

Bai. Internetarekin moldatzen ez direnek telefonoz deituta ja-

rrai dezakete txanda hartzen.

Zenbat txanda har ditzaket, mugarik ba al da?

Espazio bakoitzean, egunean behin, eta ordubetez.

Nola jakin dezaket txanda ondo eskatu dudala?

Txanda eskatu orduko mezu elektroniko bidez jasoko duzu erreserbaren konfirmazioa. Deskuiduan ezustekoren bat sortzen bazaizu, mezu horren bidez balio gabetu ahal izango duzu erreserba.

Kiroldegiko bazkide ez bainaiz, txanda har dezaket Internet bidez?

Bai. Kiroldegiko bazkide ez direnek ere izango dute txandak webgunearen bidez hartzeko aukera, eta kiroldegian bertan ordainduko lukete.

Pantailako futbolaz gozatzeko

Usurbil Futbol Taldeak antolatuta *Sunakali* filma ikusi zuten Sutegin hainbat gaztetxok. Pandemia egoera dela eta, futboleko aritzerik ez dute, baina behintzat, gisa honetara elkartzeko aukera izan zuten ostegunean. Azken neurrien arabera, berri onak jaso dituzte federazioetik futbol federatua bere ohiko entrenamenduetara itzuliko baita, baina ez eskola artekoa.



Usurbil Futbol Taldeko gaztetxoek *Sunakali* izeneko filma ikusteko aukera izan zuten.

OPARIAK

“Filmaren amaieran, hainbat opari zozketatu zituzten hurbildu ziren guztien artean”

Gazteenek oraindik zelaira itzultzerik izango ez badute ere, *Sunakali* fillmak futboleko jokatzeko garaia eraman zituen. Nepalgo emakume talde baten istorioa kontatzen du filmak, gaztetatik familia bat osatu eta etxeko

lanak egitea baino futboleko aritzea nahiago duten emakume gazte batzuen istorioa. Filmaren amaieran, hainbat opari zozketatu zituzten filma ikustera hurbildu ziren guztien artean.

Udal aurrekontuen hasierako onarpena abenduaren 23an egin nahi dute

Herritar, eragile eta udal taldeen ekarpenak bilduta, udal gobernu taldeak asteotan aurkezturiko 2021eko udal aurrekontuak hasieraz onartzeko ezohiko udalbatzarra egingo dute abenduaren 23an. Ondoko irudian, abenduaren 9an herritarrei Potxoenean egindako aurkezpen ekitaldia.



Abenduaren 9an aurrekontuen inguruko aurkezpen ekitaldia egin zuten Potxoenean.

COVID19 BIRUSAREKIN GAIXOTUTAKO KASU POSITIBOREN BAT DUTEN ETXEBIZITZAK

Erabil itzazu 3 poltsa



Positibo eman duen pertsonaren erabilera bakarrek materialak, bere zaintzailearenak, eta pazientearen gainerako hondakinak:

SARTU POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (1go poltsa).
Pazientearen logelaren barruan egin.



SARTU 1GO POLTSA, ZAINTZAILEAREN ERABILERA BAKARREKO MATERIALAREKIN, (ESKULARRUAK, MASKARAK...) BESTE POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (2. poltsa).
Pazientearen logelaren barruan, ate ondoan.



SARTU 2. POLTSA ERREFUSAREN KUBOAN (3. poltsa), ETA ONDO ITXI.
DEITU ATEZ ATEKO BULEGORA (900 776 776):
GU JOANGO GARA HONDAKINAK JASOTZERA.



ARRETAZ GARBITU ESQUAK, URA ETA XABOIA ERABILITA,

40-60 SEGUNDOZ.

PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik


GAINERAKO HERRITARREK (Eskularruak, maskarak, mukizapiak)

Kalean: errefusaren edukiontzietan
Etxean: errefusaren kuboan



GAINERAKOAN, JARRAITU OHI BEZALA SAILKA BIRZIKLATZEN






ISPILUAN

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Zortzi dira.



MARRAZTU eta MARGOTU

Apaindu Gabonetako izeia. Izan zaitetz ausarta eta jar itzazu inork esperoko ez lituzkeen elementuak.




DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.

Begira! Horra katua neguari begira. Osatu lauki zuriak BEGIRA hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, G, I, R eta A). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



B	I	G	R
R		A	
	G		
		R	
	A		
G	R	B	A



PUZZLEa

Puzzle hau osatzeko bederatzi pieza behar ditugu, baina hemen 12 daude. Zeintzuk dira txarrak?

Hiru, bi, bat

Gauza gehienak hiru aldiz ageri dira. Gauzetako bat, aldiz, behin bakarrik ageri da. Margo ezazu.



Handitik txikira

Ordena itzazu izotzetako patin hauek, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 8.



Xabier Leteren “Loreak eta zauriak”, bertsoz, kantuz eta hitz lauz

Loreak eta zauriak Xabier Leteren omendu nahi duen diziplina-artearen emanaldia da. Baina ez da omenaldi bat soilik. Elkarrizketa bat gorpuztu nahi du Xabier Leteren lehendabiziko kantak idatzi zituen garaia eta gaur egungo munduaren artean. Bere abestiak gogoratzearekin batera, bere kanten eta melodien bidez gaur egun bizi dugun jendar-teari begiratuko dio proposamen honek.

Bertsoz, kantuz eta hitz lauz 70eko hamarkadatik 2020ra, bizitzatik heriotzara, “ni”-tik “gu”-ra eta Xabier Leteren gogora bidaiatuko dugu.

Partehartzaileak

- Beñat Gaztelumendi: bertsoak, testuak.
- Xabier San Sebastian: ahotsa eta gitarra.
- Joserra Senperena: pianoa.
- Quico Pugès: biolontxelo.



Bertsoz, kantuz eta hitz lauz eskainiko dute Xabier Leteren inguruko Loreak eta zauriak emanaldia.

Abenduak 26 larunbata

■ Arratsaldeko 18:00etan.

■ Sutegiko auditorioan.

■ Sarrera: 10 euro, usurbilkul-

tura.eus atarian eskuragarri.

■ Antolatzailea: Udala.

Pettik “Manipulazio estrategiak” diskoa aurkeztuko du urtarrilaren 2an Sutegin

Urtarrilaren 2an bisitatuko du Sutegiko auditorioa Petti artistak. Arratsaldeko 19:00etan hasita, manipulazio estrategiak izango ditu hizpide kantu bidez eskainiko duen ikuskizunean. Sarrerak alde aurretik erosi beharko dira usurbilkultura.eus atarian, 10 euroren truk. Kontuan izan, sarrera kopurua mugatua izango da azken aldiko ekintza guztietan bezala.

Egitasmo honek pentsa-

mendua, hitza eta musika batzen ditu. Noam Chomsky pentsalariak komunikabideek gizartea manipulatzeko erabiltzen dituzten estrategiak identifikatu zituen. Sylvain Timsitek hamar puntutan bildu zituen, eta horietako bakoitzarekin poema bat egin du Harkaitz Cano idazleak. Poemak kantu bihurtu ditu Pettik, bakoitzaren esanahiari ondoen dagokion doinu jantzita. Hamar estrategia, hamar kantu, hamar gezi.



Sarrerak alde aurretik erosi beharko dira usurbilkultura.eus atarian, 10 euroren truk.

Orbeldik herriari eskainitako dantza emanaldia

Herriari ohore eginez dantzan agurtuko dute Orbeldikoek ezohiko 2020. urtea abenduaren 27an. “Hain ezengonkorra den testuinguru honetan, Orbeldi Dantza taldeak Soka Dantza eskaini nahi die bere bizilagunei. Ohorezko dantza honekin, egoera honen aurrean elkarri helduta batasunean lan egin da aurrera goazela transmititu nahi dugu. Ohiko dantza ziklo bat Orbeldiren begiradatik moldatua taularatuko dugu”, iragarri dute herriko dantzariak.

Emanaldirako hitzak eta bertsoak taldeak berak sortuak izango dira; aurreratu digutenez Usurbilgo Txistulariak izango dituzte bidelagun. Adi, herri-



Abenduaren 26an Aginagako frontoian arituko dira eguerdiko 12:00etan. Abenduaren 27an Oiardo kiroldegian, arratsaldeko 18:30ean.

AGINAGAN ETA OIARDON

“Emanaldirako hitzak eta bertsoak taldeak berak sortuak izan dira”

tarrei zuzenduriko bi hitzordu deitu dituzte; entsegu irekia eta emanaldia urteko azken aste-bururako. Bi saioetarako sarre-

rak aurrez eskuratu beharko dira usurbilkultura.eus atarian:

Abenduak 26, larunbata:

■ 12:00 Entsegu saio irekia Aginagako frontoian.

Abenduak 27, igandea:

■ 18:30 Emanaldia Oiardo Kiroldegian.

Buruntzaldeko gazte topaketak

“Gure herriaz ikasi, hausnartu eta formatzeko baliagarriak izango diren tailer eta hitzaldiak antolatuko ditugu”, iragarri du Usurbilgo Ernaik sare sozialen bidez. Buruntzaldeko gazte topaketak antolatu dituzte urte amaierarako, “Euskal Herri feminista, sozialista, euskaldun eta askea denon artean eraikiko dugulako!”. Momentuz, topaketa egunak zehaztu dituzte; abenduaren 27tik 30era izango dira. Egunotan aurkeztu eta zehaztuko dute egitaraua.



Abenduaren 27tik 30era egingo dira gazte topaketak.

PiRRItx, Porrotx eta MaRRiMotots

Amaren intxaurreak

USURBILEN

urtarrilak 4, astelehena
kiroldegian 18:00

Sarerrako atea 17:30ean irekiko da

SARRERAK: 8€, aldez aurretik, Noaun
abenduaren 21etik aurrera 9:00 - 13:00 eta
16:00 - 18:00 artean
urtebetez gorakoek sarrera ordaindu
behar dute



OPARITU ILUNABARRIK GOXOENA

SunsetBastian

www.sunsetbastian.eus · reservas@sunsetbastian.eus · @ssunsetbastian



noaúa

jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter noaúa

www.noaúa.eus



BURUNTZALDEA
KIROLAK

**KIROLDEGIKO TXANDAK,
INTERNETEZ**

Abenduaren 10etik aurrera
tramiteak.buruntzaldea.eus

QR code

“Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea laguntzen jarraituko dugu”

Ostalaritza sektorea mar-txan da berriz larunbat-taz geroztik. Herrian Covid-19ari lotutako egoera epidemiologikoa Osasun Sai-laren arabera hobea da orain. Baina kezkatuak daude tabernariak eta baita Usurbilgo Uda-la ere. Sektorea babestu eta la-guntzeko konpromisoa berretsi zuten astelehen eguerdian Mikel Laboa plazan egin zuten agerraldi bateratuan.

“Atzera itzultzeko muga ez dago hain urruti eta beraz ezin dugu erlaxatu”, ohartarazi zuten Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak.

Osasun krisialdi betean gara baina baita horren eraginez, “jada hasi gara pairatzen krisi sozial eta ekonomikoa ere”. Errealitate latz honen isla argia dira alkateak alboan zituen Usurbilgo ostalariak. “Badakigu garai latzak izaten ari direla haien zatiak”, zioen alkateak herriari ematen dioten bizitasuna aitortzarekin batera. “Pertsianak jaitzita, hilik ikusi dugu herria eta ez dugu halakorik nahi. Usurbil bizirik nahi dugu eta horretan ari gara lanean”, nabarmendu zuten alkateak.

Laguntzen jarraitzeko konpromisoa

Sektorearen kezkekin bat egin zuten udal gobernu taldetik. “Izan ere gu ere kezkatuta gaude itxierak ekar ditzakeen ondorioekin. Hainbat eta hainbat familien bizibideaz ari baikara hizketan eta hori



Udalak ostalaritza babesteko konpromisoa berretsi zuten astelehen eguerdian, Mikel Laboa plazan egindako agerraldi bateratuan.

PAULINO IBARGOEN

Ostalariei ezartzen zaizkien aginduak zorrotz betetzen dituztela dio: “guk hobeto ezin dugu egin”

ez da inolako broma”, nabarmendu zuten alkateak.

Horretarako abiarazi zuten uda aurretik Gertuago egitas-moa, eta ildo beretik segitzeko konpromisoa berretsi dute. “Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea laguntzen jarraituko dugu”.

Azaroaren 7an itxi behar izan zituzten negozioak diruz laguntzeko lerro berri bat sortzeko lanetan ari da Udala, negozio bakoitzak “1.000 eurora arteko laguntza jaso ahal izango du”. Horrekin batera, bigarren irekiera honetan “terrazak babesteko lanketan ari gara tabernariekin, karpak jartzeko aukera erraztuz”.

“Ez dezala gure aisiak haien bizibidea ito”

“Gozatu geurean, arduraz” eta “elkar zaindu dezagun!”,

mezu hauexek eskuartean zituzten txartelekin parte hartu zuten agerraldian tabernari-ek. Tabernetara joaterakoan kontuan hartu eta zorrotz betetzen segi beharko ditugun arauak biltzen dituzte; “maskara erabili, 1,5 metroko distantzia mantendu, mahaien desinfekzioa egin arte itxaron, lokal honetako langileen esana errespetatu”.

Langile guztiok hilabeteotan inoiz baino gertuago izan ditugun moduan, guk modu berean erantzuteko unea dela adierazi du alkateak. “Bistan da herritarrok ostalariek gertu behar gaituztela, gertu baina arduratsu”, adierazi zuten Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak.

Eskaera argia herritarrei. “Ez dezala gure aisiak haien bizibidea ito”.

“Guk lan egin behar dugu”

Bigarren itxialdia amaitu osteko hirugarren lan eguna zuten tabernari-ek. Lanerako itzulerara hau, Bordatxoko langile Paulino Ibargoienek argi utzi zuenez, “ez da izan guk nahi

genuen bezalakoa, gazi-goza izan da”.

Ireki bai, baina neurri zorrotzen artean lan egin behar dute. Halere argi du Paulinok, “guk egin behar duguna da lana”. Ahal bezain laster, baldintza “normalagoetan” lan egin ahal izateko beharra adierazi zuten. “Ia pixka bat uzten diguten hau bestela ezinezkoa izango baita”. Bide horretan argi du, “ezin gara erlaxatu, ahal den guztia egiten segi behar dugu”, nahiz eta tabernari-ek ezartzen zaizkien aginduak (garbitasuna, distantzia, aforoa, ordutegia...) zorrotz betetzen dituztela jakin. “Guk hobeto ezin dugu egin”, utzi zuten argi.

“Ez digute lan egiten uzten!”

Herri ostalaritzari babesa adierazteko elkarretaratzea egin zuten abenduaren 8an Mikel Laboa plazan. Mobilizazioaren harira plazaratu zuten idatzian ozen eta argi diote; “gu ez gara errudunak!”, ostalaritza gu-neak itxita egon arren, Covid-19 kasuak ez direla murriztu ohartarazita. Hitz eman zaizkien laguntzen zain segitzen dutela salatzen dute, batzuk aurrez-kietatik bizitzen, besteak mail-legua eskatzera heldu direla. Baina garrantzitsuena, “ez digute lan egiten uzten!” nabarmendu zuten. Ostalaritzak herriari eta herriak ostalaritzari “asko ematen dio” gogorarazten dute. Hainbat herritar batu ziren mobilizaziora. Elkarri eskerrak emanez, txalotuz amaitu zuten elkarretaratzea.

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta SALMENTA
 MARKA GUZTIAK
 azkar, prezio onean
 20 URTEKO ESPERIENTZIA
 645417665
 XABIER Usurbil

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTON BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO
 Kale Nagusia 10, 1.C4
 Tlf 943 37 08 78
 RPS: 28/17
 20170
 USURBIL

Zuen
 publizitatea
 hemen
 943 360 321
 publizitatea@noaua.eus

Patxi Azpiroz: “Paseoa Gipuzkoan gehien egiten den kirol jarduera da”

Txikitatik bizitza mugimendua dela argi izan du eta praktikara eramandu gainera. Ebakuntza bat egin ostean, errehabilitazio gisara aldapa gutxiko tokietan ibiltzea aholkatu zioten. Ibilian, herrian lehenik, inguruetan gero, Gipuzkoako bideak zeharkatu eta eginikoa, bizitakoa, NOAUA! Kultur Elkartearekin 2008an plazaraturiko “Gipuzkoan zehar, “paseo moduan egiteko 161 ibilbide lauak edo nahiko lauak” bildu zuen Patxi Azpiroz usurbildarrak. Pandemia hilabeteotan, paseoa herritarren kirol jarduera gustukoenean bilakatu den honetan, bereganatu du berriz aldizkari honek, gaiari egungo ikuspuntutik berriz heltzeko.

NOAUA! Paseatzeko beti toki berak hautatzen ditugula diozu?

Patxi Azpiroz: Bada jende bat beti paseo bera egiten duena; usurbildarren kasuan Zubietako buelta. Beste tokietan ere lauak diren ibilbideak osatu eta horiek errepikatzen dituzte behin eta berriro. Paseoa Gipuzkoan gehien egiten den kirol jarduera da.

Inguruotan osatzeko ibilbideak jaso zituen zure argitalpenak.

Usurbilek toki lauak behean ditu, bestela aldapan gehixeago ibili behar. Zubietan, Txokoalde, Aginaga... Etapa desberdinak daude. Usurbilek baditu paseo oso onak eta erabat eguterak direnak; Arratzainetik Aginagarako paseo laua, eguzkitsua erabat, bistak ezinhobeak. Izan daiteke Andatzako gailurrera igo ordez, pistatik osteratxoa egitea ere.

Nola aurkitzen zenituen ezauzgarri zehatz hauetara egokitu-



“Usurbilek baditu paseo oso onak eta erabat eguterak direnak”, azaldu digu Patxi Azpirozek.

PATXI AZPIROZ

“Orain agian jende gehiagok paseatzen duela? Agian bai. Usurbilen nabaria da. Lehen emakumeak ibiltzen ziren nagusiki, gaur egun adin guztietakoak dabilta bueltaka”

tako ibilbideak?

Garai hartan gipuzkoa.net biltzaile geografikoa zegoen, oso ona. Ibilbide lauak diren edo ez ikusteko. Gero bertara iristeko ze garraio publiko zegoen begiratzeko nuen; batez ere Oria dago ondoen komunikatua. Beste leku batzuk ez.

Lan hura argitaratzetik hona ibilbide berriak egokitu dituztela sumatu duzu?

Lan hau egin ondoren paseo piloak zabaldu dituzte. Hau egin nuenean adibidez, egun milaka pertsonak erabiltzen duten Zarautz-Getaria ibilbidea osatu gabe zegoen. Deba eta Mutriku artekoa zabaldu berri dute. Lehen zeuden egiturak eta gaur egun moldatu

dira paseorako eta egin diren konponketak.

Paseorako zaletasuna handitu dela esan daiteke.

Orduan paseatzen zen eta orain agian jende gehiagok paseatzen duela? Agian bai. Usurbilen nabaritzen da. Lehen emakumeak ibiltzen ziren nagusiki, gaur egun adin guztietakoak dabilta bueltaka.

Nola ikusten duzu gertuko bide sarea paseorako?

Paseorako jende gehienak Zubietako bide hori erabiltzen du. Gaur egun ibiltariak, bizikleta eta kotxe pila bat, autobusa, kamioiak... dabilta. Arazoak konponbide oso zaila du, errepide oso estua da. Baina beti esan izan dut, Usurbilek toki lau horrez aparte, ibai ertza dugu. Ertz horretako itzulia, Usurbilek gaur izango lukeen toki lasai eta politena litzateke. Bestalde, Donostian adibidez, bidegorrietan bizikletak kotxeari tokia kendu ordez, oinezkoari kentzen diote.

Pandemiak paseora jende gehiago erakarri du?

Konfinamendu ondorengo egunek manifestazioak ziruditen.

Jende multzoa, bata bestearen atzetik. Hala zeuden paseo guzuek eta Andatzara joanda ere berdin. Andatzan oinezkoek gain, bizikletadun jende izugarri piloa. Egun horietan Andatzara iluntzeetan joaten nintzen.

Paseatzeko ohiturak egokitu beharko ditugu pandemia egoera honetan.

Ez da ohitura kontu bat soilik, ze jende kopuruaz ari garen baizik. Ez da bakarrik hemen. Uztailea hasieran Anbotoko gailurrean 200 pertsona zeuden, behetik gora jende gehiago zetozen. Ikusgarria baina ulergarria da. Denok leku beretsuetan gabiltza bueltaka. Gainera kanpoan ibiltzea aholkatzen digute. Lehendik mendian gabiltzanak halere, beti topatzen ditugu jenderik ez dabilen lekuak.

Gertukoa baloratzen ikasten ari gara?

Kanpokoa izugarria da baina jabetu behar gara hemen duguna ere izugarria dela. Hemen daukaguna izugarria dela konturatuz, besteak ere gehiago miresten dira.

Zubietako bideetan adi ibiltzeko eskaera

Patxi Azpirozek bere elkarrizketan aipatu digu Zubietako bidean ibili ohi den mugimendua. Handik bizilagun batek ere gai berarekin ohartarazi gaitu. Bertan bizi direnek ezinbestean etxetik atera edo itzultzeko ibilgailua hartu eta bidean izan ohi dituzten ezusteez. Iluntzeetan bereziki. NOAUA! bidez bizilagun batek bereziki gauzez korrika egin edo oinez ibiltzera doanari arropa islatzailea jantzita izateko eskaera zabaldu nahi du aldizkari honen bidez.

Jon Hernandez, paseoan herria erretratatzeko

Goiz askotan herriko txoko ederrenetan ateratako argazkiekin eta dugun tenperatura eta giroaren berri emanez esnatzen gaitu. ETB-ren “Eguraldia” tartean ere Usurbilgo “korrespontsaketako” batean bilakatu da Maria Jesus Etxeberriarekin batera. Hori eta gehiago ematen diote Jon Hernandezi egunero herrian barrena egiten dituen ibilaldiek. Pandemia hilabeteotan, herri nahiz mendi bideak ibiltariez josi diren garai honetan elkarrizketatu du NOAUA!k.

NOAUA! Lehen bereziki Donostia erakusten zenigun argazkietan, orain gehiago Usurbil.

Jon Hernandez: Donostia mutur batetik bestera ezagutzen dut. Turistekin ere “gida lanak” egin eta mapa turistikoetan agertzen ez diren leku politak erakutsi izan dizkiet. Usurbil apur bat ahaztua nuen. Pandemiari “esker”, Usurbil sakonago ezagutzen ari naiz; auzoak, bideak... Egun gutxiko tartean argazkiak errepikatu beharrean aurkituko nintzen kezka nuen, baina ez.

Paseoetatik datorkizu argazkigintzarako zaletasuna?

Mugikorrarekin hasi nintzen, batez ere Donostian. Lagunei argazkiak gustatu eta telebistara bidali nitzakeela esaten zidaten. ETBren “Eguraldia” tartera bidaltzen hasi eta bide batez, sare sozialetan zabalitzen ditut. Alkatea jarraitzen hasi zitzaidan behin, eta Udalarekin, NOAUA!rekin, Euskalmet edota Donosti Meteo-rekin partekatzen hasi nintzen argazkiak.

Eguraldiari buruzko informazioa emansten diezu argazkiei. Nolatan?

ETB-ren “Eguraldia” saiora argazkiak bidaltzeko ze eguraldi dagoen aipatu behar izaten da.



“Pandemiari ‘esker’, Usurbil sakonago ezagutzen ari naiz; auzoak, bideak...”, azaldu digu Jon Hernandezek.

JON HERNANDEZ

“ETBren ‘Eguraldia’ saiora argazkiak bidaltzeko ze eguraldi dagoen aipatu behar izaten da. Batzuk meteorologoa naizela uste dute”

Batzuk meteorologoa naizela uste dute. Beste batzuk inguru honetara datozela eta zer eguraldi egingo duen galdetzen didate.

Zereginotan Usurbilgo “korrespontsaketak” bilakatu zarete zu eta Maria Jesus Etxeberria.

Bai. Maria Jesus laguna dut. Egoten garenean bidaltzen ditugun argazkiez hitz egiten egoten gara. Bere argazkiak artistikoagoak dira.

Zure argazkietan zer islatu nahi izaten duzu?

Intuizioa baliatzen dut. Ibiltzen noala objektuak berak eskatzen du argazkia ateratzea, ez naiz argazki bila ibiltzen. Euria ari duenean, Bizkarreko skate parkera joaten naiz, ortzadarraren bat argazkitan ateratzera.

Auzoak izugarri gustuko ditut. Egun bakoitza, leku bakoitza desberdina da eta udazken koloreak dira gainera bikainenak, niretzat gustukoena. Aginaga geratzen zait, nire haurtzaroko bizilekua. Ze baserri politak dauden! Haien izena ikertzen aritzen naiz. Herriko historia ezagutzeko balio dit. Gauza asko ikasi ditut argazkiak ateratzen ibilita.

Pandemia garaiotan paseoan zabiltzanean zer ikusten duzu ibiltarien artean?

Jendea batez ere. Aurpegi tris-teak, etsia hartuta. Etxean egin ezin dutena egiten, Zubietako bidean esaterako, Lasarte eta hemengo jendea elkarrekin topatu eta hitz egiten.

Zortedunak gara hemen bizi-ta, paseorako biderik ez zaigu falta.

Euskaltegian hasi nintzenean gogoan dut, Usurbilgoa nintzela esan eta nire herriaz hitz egitea proposatu zidan irakasleak. Kaxkoa bakarrik ezagutzen nuen. Herri handia da. Auzo bakoitzak bere nortasuna du.

Landatarra baina mundukoa. Kultur mundu potentea dugu.

Argazkilaritzan urrats gehiago eman nahi zenituzke?

Profesionalizatu ez. Argazkilaritza ikastaroa egin nuen duela hamarkada batzuk negatiboekin eta. Artea gustuko dut, margotzen ahalegindu naiz, literatura ere gustuko dut, Irungo txapelketan edota Egin egunkariak antolaturikoetan parte hartzen nuen. Gabriel Aresti erreferentea da niretzat. Berarekin euskara asko ikasi nuen.

Nola bizi izan duzu ospatu berri den Euskaraldia?

Dena itxita zegoenez zail samarra izan da. Komertzio eta tabernetan euskaraz mugitzen naiz. Ilobek euskaraz hitz egiten dute eta motibagarria da. Ostalaritzan praktikatzen dut gehien euskaraz, azkenean ez da ezer kostatzen. Saltzaile ibiltaria izan naiz gaztetatik, herri euskaldunetan ibili izan naiz. Zure aldetik jarri behar duzu beti. Euskal kultura oso gogoko dut.

Gabonetan, gaztetxoentzako Neguko Txokoak

Eskola Kirola eta oro har talde kirola azaroaz geroztik etenda duten haur eta gaztetxoei zuzenduriko eskaintza interesgarri askoa abiatzear dituzten oportunitateak; aisialdia eta gorputz hezkuntza ardatz izango dituzten Neguko Txokoak antolatu dituzte NOAUA! Kultur Elkar- teak eta Usurbilgo Udalak. Adi, izen emateko hiru egun finkatu dira; abenduaren 15etik 17ra.

“2020. urtea berezia izaten ari dela ezin ukatu eta gure haur eta gaztetxoei ere modu berezian tokatzen ari zaie egoera hau. Azaroaren 6tik Eskola Kirola eta orokorrean talde kirola ere ezin izan dute egin. Egoera honen aurrean, Udalarekin elkarlanean, Neguko Txokoak antolatzea posible egin dugu. Txokoetan, aisialdia eta gorputz hezkuntza izango ditugu begibistan eta batez ere, segurtasun neurriak zainduaz, elkar zaintza susta- tuko dugu”.

Sei eguneko iraupena izango dute Neguko Txoko hauek. Bi ordu eta erdiko sei saio izan-



Izen-emate orria bete behar da txokoetan parte hartzeko. QR kodearen bidez edota helbide honetan eskura daiteke izen-emate orria: labur.eus/Tv08k

NEGUKO TXOKOAK

“Hiru gune nagusi izango ditu: Kaxkoa, Aginaga eta Zubieta. Izena emateko epea abenduaren 17an amaituko da”

go dira guztira. Hiru guneetan egokituko dira txoko hauek; Aginagan, Kaxkoan eta Zubietan. Adi, izen emateko hiru egun finkatu dira, abenduaren 15a, 16a eta 17a.

Izen-ematea, online

Segidan duzuen estekan aurkituko duzuen izen-emate orria bete beharko dute txoko haue- tan parte hartu nahi dutenek: labur.eus/Tv08k

Horrekin batera, adi; kuota bat ere ezarri da. Baina kon- tuan izan; “Zirimaran izena emanda dutenek eta kuota ordainduta, Neguko Txokoak ez dituzte ordaindu beharko. Modu honetara, azaroaren 6tik abenduaren 18ra arteko Zirimarako saioak errekupe- ratzat emango dira. Zirimaran

izena emanda izan eta Neguko Txokoetan ez badu izenik ema- ten, ikasturte amaieran kuota itzuliko zaio dagokion propor- tzioan”.

Gainerakoek bai, 30 euroko kuota ordaindu beharko dute. Hemen dituzue xehetasunak:

Neguko Txokoak

- Orduetgia: 10:00-12:30.
- Kaxkoan: abenduak 21, 22, 23, 28, 29 eta 30.
- Aginagan eta Zubietan: abenduak 23, 28, 29, 30 eta urtarri- lak 4, 5.
- Izen ematea: abenduaren 15etik 17ra helbide honetan: labur.eus/Tv08k
- Ordainketak: Zirimaran izena eman eta kuota ordaindua dute- nek ez dituzte Neguko Txokoak ordaindu beharko. Gainerakoek bai, 30 euro, NOAUA! Kultur Elkartearen Rural Kutxaren kon- tu zerbaki honetan: ES03 3008 0259 1130 8649 6928. Ordaina- giria elkartea@noaua.eus helbi- dera bidali.
- Antolatzaileak: NOAUA! Kul- tur Elkartea eta Usurbilgo Uda- la.

“Ipuin-herriko berriak” filma, urtarrilaren 3an Sutegin

Urtarrilaren 3an se- gida emango diote Usurbilgo Udalak eta Ziortza Gazte Elkar- teak negu parteko haurrei zuzenduriko euskarazko zine zi- klo arrakastatsuari. “Ipuin-herriko be- rriak” filma proiektatuko dute 17:00etan Sutegiko auditorioan.

Sarrera salmenta

Aldaketarik ez bada, usurbilkultura.eus atar- ian eskuratu ahalko dira sarrerak 3 eurotan.

Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak

ISPIJUAN
Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Zertzi dira.

Marratzu eta Margotu
Apiraindi Gabonetako izeia. Izan zaitzez osarrita eta jar itzazu mark espe- ronek ez lituzkeen elementuak.

DOMINOAN
Bete itzazu lauki zurik, domino zati honak zertzeak izan dezan.

Begira! Herra katus negari begira. Ostu lauki zurik BEGIRA hitza osatzen duten letra-rik kontuatu harritu (B, E, S, I, R eta A). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta areo bakoitzeko.

Puzzlea
Puzzle hau osatzeko bideretzi pieza behar ditugu, baina heman 12 daude. Zeintzuk dira txarrik?

Hiru, bi, bat
Guzuzan pelakak hiru aldiz ageri dira. Guzuzan bat aldiz, behin bakoitza ageri da. Marra ezazu.

Handirik txikira
Ordina itzazu izatzetako patin hauak. Irudien 1 zerbaki emenez, eta txikienari 8.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Kontratu finkoa daukat eta Usurbilen edo Lasarten kontratuarekin eta errodarekin alokairuan etxe bat edo logela bat hartuko nuke. Fernandorengatik galdetu: 675886442.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo erdigunean gela bat alokatzen da gizaseme langile edo jubilatu bati. Nahiago eus-kalduna izatea. 687348223

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari

naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina kotea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduena. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuak deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka,

pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuan haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722483994.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona

helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Perikito bat galdu da Puntapax inguruan. Urdina, bularraldean lumak galduta ditu. Topatu baduzu, deitu hona: 675007048.

Mendiko bizikleta bat salgai 450 euro, negoziagarriak. 646715903 (Maider)

Kutxa bat eta 6 zentimetroko lodieradun egurrezko bi mahai salgai. 618 009 069

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nurria. Domatua. Burukoa, arnesa eta eserlekuarekin. Informazio gehiago Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburukak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Zorionak!!

Zorionak amona Lucia! Familiaren partez!



10 urte beteta
Zabiltza gustora
Bihurri ta bixiya
Sorgin txiki ona
Bazterrak alaituaz
Hara eta hona
Etxekoan partetik
Zorionak Nora.

**Heriotzak**

Juan Manuel

Elvira

Hernández

Abenduaren
10ean hil zen,
62 urterekin

**Zorionak Izar!!**

Abenduaren 24an 8 urte egingo ditu etxeko Izarra iritsi zenetik. Zorionak maitia eta besarkada bat guztion partez.



Zorionak!! Abenduaren 18an Unai 9 urte egingo ditu eta Anderrek berriz abenduaren 29an 11 urte!! Zorionak eta muxu handi bana familia guztiaren partez!!!

**Zorionak Jon eta Anne!!**

Abenduaren 26an 10 urte beteko dituzue, zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 19 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 20 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 21 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 22 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 23 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 24 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 25 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 26 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 27 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egingo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Agenda abendua

18 ostirala

- **Dokumentala: "El Drogas"**. 19:00etan Sutegin. Sarrera: 5 eurotan, aurrez eskuragarri usurbilkultura.eus atarian.
- **Erakusketa Sutegin:** "Tasioren Kuba".
- **Erakusketa Sutegin:** "Usurbilgo sortzaileen uzta".

19 larunbata

- **Andatzako altxorrek gertutik ezagutzeko txangoak** (ikus azpiko albistea).
- **"Aioko" ikuskizuna**. 17:00etan Sutegin. Sarrera: 5 eurotan alde aurretik, Lizardin.
- **Erakusketa Sutegin:** "Tasioren Kuba".
- **Erakusketa Sutegin:** "Sortzaileen uzta".

20 igandea

- **"Hil Kanpaiak" filma** 18:00etan Sutegin. Sarrerak usurbilkultura.eus atarian eskuragarri.
- **Erakusketa Sutegin:** "Tasioren Kuba".
- **Erakusketa Sutegin:** "Usurbilgo sortzaileen uzta".

Olentzerorentzako gutun bilketa

A benduaren 24an auzoz auzo ibiliko den Olentzerori gutuna idazteko aukera duzue. Adi, hainbat postontzi jarri dituzte guneotan: Aginagako Arraten, Santueneko Gure Elkartean, Zubietako Alamandegin. Usurbilen guneotan: Artzabal, Laukote, Laurok, Txirristra, Sutegi udal liburutegia, Txiriboga, Kale Nagusiko Ogi Berri, Txalaka eta Udarregin (azken honetan hilaren 18tik aurrera).

Olentzerok abenduaren 24an osatuko duen ibilbidea ere zehaztu du antolakuntzak:

- 18:00 Aginaga: Intxaurreta, Elutx kalea, Sekaña, Estrata kalea (Aginaga Sagardotegia).
- 18:10 Txokoalde: Galardi Etxea, Akearra, San Esteban, Urda, Zabale.



Olentzero auzoz auzo ibiliko da abenduaren 24an. Aginagatik abiatuko da 18:00etan.

- 18:30 Santuenea.
- 18:45 Zubieta: Learritza pasealekua, Irigoien kalea, Barazar kalea, Araundi kalea.
- 18:55 Txikierdi: Troiako aldapa.
- 19:00 Kalezar: Belmonte kalea.
- 19:05 Kaxkoa: Etxealdia, Txaramunto, Atxegalde, Artzabal, Munalurra, San Inazio, Bordatxo ingurua.

Andatzako altxorrek ezagutzeko aukera

Asteotan egin diren "Andatzako altxorrek: errotarri, mugarri eta aztarna arkeologikoak" jardunaldiak borobiltzeko, Sutegiko solasaldietan hizpide izan diren altxorrek bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da adituen eskutik. Larunbat honetan (abenduak 19) izango da, Usurbilgo Udalak 9:00-12:00 artean antolatutako dituen txangoetan.

Egungo osasun krisialdira egokitutako

hitzorduak izango dira: gehienez seiko taldeetan abiatuko dira irteerak ordu tarte horretan, hoguei minuturo Igartzazabal baserri paretik. Sei kilometroko ibilaldiak izango dira. Irteera hauetarako izena abenduaren 17a baino lehen eman behar da usurbilkultura.eus atarian. Gehienez 54 lagunentzako lekua egongo da. "Udalak adieraziko die izena emandakoei zein ordu-tarte dagokien", ohartarazi dute antolatzaileek.

Datozenak

Abenduaren 22an Sutegin, "Etxean goxo" txotxongilo ikuskizuna

- 17:00etan Sutegin.
- Egileak: Rosa Martinez eta lagunak.
- Sarrerak: doan eskuragarri, alde aurretik usurbilkultura.eus atarian.
- Nori zuzendua: 3 urtetik gorakoentzat.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduaren 27an Sutegin, "Tomaxen abenturak: Azken balea"

- Haurrentzako pailazo ikuskizuna.
- 17:00etan Sutegin.
- Sarrerak: doan eskuragarri, alde aurretik usurbilkultura.eus atarian.
- Adina: 4 urtetik gorakoentzat.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduaren 28an Sutegin, gaztetxoentzako bertso-jaiak

- 17:00etan Sutegin.
- Bertsolariak: Haritz Mujika eta Maialen Akizu.
- Nori zuzendua: 9-12 urte artekoentzat.
- Sarrerak: doan eskuragarri, alde aurretik usurbilkultura.eus atarian.





Usurbil Autoak

TXAPA-PINTURA-MEKANIKA



 30 URTE ZERBITZUAN

DESINFEKZIO GUNEA

**ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE!**

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA, USURBIL 943 36 10 79

IMANOL RAYOREN FILM BAT



A film by
IMANOL RAYO

HIL-KANPAIAK
(TOLLING THE KNEEL)

ITZIAR ITUÑO - ENEKO SAGARDOY - YON GONZÁLEZ
ASIER HERNÁNDEZ - IÑIGO ARANBURU - DORLETA URRETAZKAIA - JOSEAN BENGOTXEA
KANDIDO URANGA - PATRICIA LÓPEZ ARNAIZ - ANDRÉS GERTRUDIX - ITSASO ARANA

noqua

HIL KANPAIAK
FILMA

Abenduak 20, igandea
SUTEGI AUDITORIOAN
18:00

Sarrerak: aurrez salgai 6 eurotan
usurbilkultura.eus plataforman.

Bazkideek 4 eurotan eskuratu ahal izango
dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

noqua





preziyo juxtua

**AMAITU DA PREZIYO JUXTUA KANPAINA!
ZENBATEKOA ZEN ESKAPARATEAREN BALIOA?**

2.435,70 €

Pasa gabe, preziora gehien hurbildu diren
10 pertsonetako bat bazara, eskaparateko
zure oparia aukeratu ahal izango duzu

Datozen egunetan jarriko gara irabazleekin kontaktuan

KOMERTZIO PARTE-HARTZAILEAK

AGINAGA SAGARDOTEGIA • AITZAGA TABERNA • AIZPURUA OKINDEGIA • ALDAMU OINETAKO KONPONKETAK • ALKARTASUNA NEKAZAL
KOOPERATIBA • ANE ILEAPAINDEGIA (ARTZABAL) • ARRUTI HARATEGIA • ARTZABALGO BASERRI-JATETXEA • BIXEN ILEAPAINDEGIA • BORDATXO
TABERNA • ESNAOLA SUPERMERTKATUA • IMANOL TXAPARTEGI HARATEGIA • N.I. ILEAPAINDEGIA • INTZA ILEAPAINDEGIA • IRATZE NATUR DENDA
• ITURRALDE FARMAZIA • ITZIRA ERAIKUNTZAK • JUANTXO BURDINDEGIA • KAFFA KAFETEGIA • LAUKOTE • LAUROK LIBURUDENDA • LIZARDI
LIBURUDENDA • LURDA MERTZERIA • MARIJE JANTZIDENDA • MIKEL ARRANDEGIA • OPIL GOXO • OTAR GOXO • SAIZAR SAGARDOTEGIA •
TXIRRISTRA TABERNA • USURBIL OPTIKA